

PHILIPPE ETXEGORRI

«Euskalduna naiz, ez biarnesa»

Euskararen mugak Zuberoako lurralde administratibotik harago doaz, azken mendeotan euskaraz mintzatu izan baita Zuberoa ekialde ondoko Biarnoko lurretan. Eskiula eta inguruko herriotako etxalde euskaldunei buruzko *Biarnoko euskaldunak* liburua idatzi berri du Philippe Etxegorrik (Angulema, 1971).

| JONMIKEL INTSAUSTI |



J.L.

“Iparraldeko euskara ahulezia egoeran baldin bada, Biarnoko hizkuntza, biarnesa, kinka larriagoan da”.

BERRIZEN (BIZKAIA) bizi den ingeniariak Biarnoko Jeruntzeko Alaxe etxaldean kokatzen ditu aitaren sus-traiak. Liburuan, auzotako historia, egoera soziolinguistikoa eta euskararen ezaugarriak argitaratu ditu, desagertzekotan ziren gauza ugari-ren lekukoa dela ohartu ondoren.

Euskal Herritik kanpo, Frantziako Anguleman jaio zinen. Nola gogora-

tzen duzu haurtzaroa? Nolako harremana izan zenuen euskararekin?

Frantziako leku askotan ibili nintzen gazte nintzelarik, aitaren lanagatik, hala ere harreman estua genuen bere familiarekin. Euskararekiko harremanak urriak ziren, eta ni gazte nintzenean euskararen gaia ez zen aipatzen. Beraz, oso gazte nintzelarik, ez nekien nork zekien euskaraz familian.

Nerabezaroan euskaraz ikasteko gogoa piztu zitzaizun, nola izan zen hori?

Hori gertatu zen jakin ukan nuen nire familian batzuek bazekite-la euskaraz egiten, eta hasi nintzen galdezka, eta pixkanaka-pixkanaka hasi nintzen familiako euskara berreskuratzen. Gero, uste ukan nuen aski ikasi nuela, erabaki nuen nire senide euskaldunei gutun

banan idaztea eta horietako batek, nire osaba handiak, poztasunez hartu zuen nire iniziatiba, eta hola hasi ginen biak, bata besteari idazten eta hamar urtez euskarazko gutunak partekatu genituen.

Bi belaunalditako idazlagunak. Zer edo nola ikasi zenuten elkarri idatzitakoarekin?

Biek bi mailatan ikasi genuen. Jeruntzeko euskararen oinarriak ikasi nituen eta nire osaba handia hain gustuko zuen hizkuntzari berriz lotu zitzaion, denbora luzez ez baitzuen zubereraz egin ahal ukan, Oloroe [Biarno] iparraldeko herri batean bizi baitzen. Bestetik, osaba handiak gaztaroko oroitzapen anitz nirekin partekatu zituen, eta nik kontu modernoago batzuen berri helarazi nion, adibidez: nire ikasketak, egiten nituen bidaiak, lan kontuak; bera erretretan baitzen.

Kontaidazu, Biarnoko Ustazu, Sangoine, Jeruntze, Eskiula, Inhaze, Arhanze, Aramitze, Landa... Herriok euskarak irabazitako lurak dira.

Bai, eta hori ongi dokumentatua da. Orain Eskiulan bizi diren bizizale gehien gehienak euskaldunak dira eta arbaso euskaldunak dituzte. Duela bospasei mende, Zuberoako jaun batek lurrak Biarnon zituen, Ledeuixeko bordaldeko jabea zen eta Zuberoako kadete asko etorraz zituen, Biarnoko mugako lur horietan finka zitezen. Kadete horien guztien etorrazteko, pribilegioak edo eskubide bereziak eman zizkien. Gero, jaun zuberotar horiek Eskiulako jabetasuna galdu zuten eta jaun biarnes batek erosi zizkien Eskiulako lurrak. Jaun biarnes horiek saiatu ziren Eskiulako bizilagunak biarnesten, hastapenean apaiz biarnesak ezarri zituzten Eskiulan, baina hori ez zen nahikoa izan Eskiulako bizilagunak biarnesteko. Jaun biarnesak saiatu

ziren eskiulatarren pribilegioen kontra egiten, baina ez zuten lortu, Eskiulako bizilagunek beti kontra egin baitzuten eta epaiketetan beti irabazi zuten, zeren eta pribilegio horiek funtsean ez ziren pribilegioak, baizik eta usadioak babesten zituen jaunarekiko arauak. Hori zen kontua: orduko garaietan, legea ez zen jabeak edo jaunak erraten zuena, baizik eta ohidurak babesten zuena.

Hizkuntza eremu desberdinetako auzoak izanik, hizkuntzaren aldetik banaturik sentitzen ziren herri bereko bi giza-taldeak, nahiz eta gero euskaldunak euskaraz, frantsesez eta biarnesez ere mintzatu.

Hastapenean oztopoak fisikoak ziren, edo geografikoak. Oztopoa oihan trinkoa izan zitekeen edo muino altua, orduan, harreman bakarrak Biarnoko merkatuetan gertatzen ziren eta alderri euskalduneko gizonezko batzuk merkatuetan

kontua, Iparralde osoan gertatu da eta seguru aski Hegoaldean ere bai.

Euskararen jarraitasunean elizak ere bere lana egin zuen.

Erran daiteke, zalantzarik gabe, eliza izan dela Biarnoko euskaldun komunitatearen ardatz nagusia. Elizak Biarnoko euskaldun guztiak biltzen zituen. Orduan, Biarnoko euskaldun gehienak Eskiulako eliztarrak ziren, eta beste batzuk, mugan bizi zirenak, Barkoxekoak [Zuberoa]. Elizak indar zentripetu gisa egiten zuen. Eskiulatarrek komunitate txikia osatzen zuten eta guztiak ziren askazi edo senide, odolez edo ezkontzaz. Biarnon beharbada gehienez mila bat euskaldun bizi ziren eta denek elkar ezagutzen zuten, denek bazuten loturaren bat beren artean.

Identitatearen harian, Biarnoko euskalduntzat duzu zure burua, ez biarnestzat.

Bai jakina, nire familia osoaren moduan, ni euskalduna naiz, ez biarnesa. Are gehiago, familian zuberotarrak sentitzen gara eta zuberotartzat jotzen dugu gure burua.

Gaur egun, nola eskolatuak dira bertan bizi diren haurrak?

Eskiulako haur guztiak Eskiulako Haur Eskolara doaz. Nik dakidala, Sohütako [Zuberoa] Ikastolara bakar bat doa. Euskarari dagokionez, eskolatzeko ia osoa erdaraz egiten da, Mixel Etxekopar ospetsua astean behin Eskiulako eskolara doa kantu batzuen irakastera, eta kito! Euskaraz ez da deus gehiago egiten. Barkoxen, aldiz, badute gela elebidun bat eta bertako haur anitz Sohütako Ikastolara doaz. Bi herrien egoera erabat ezberdina da. Batetik, badugu

“Eskiulatarrak bi munduren artean bizi direla erakusteko bi gauza aipatuko nituzke. Bata da Eskiula Zuberoako Sindikataren kidea dela, eta aldi berean Oloroe mendebaldeko herri elkargoaren kidea ere bai”

ra joaten ziren beren ekoizpenen saltzera. Eta ez zen beste harremanik. Gero errepide asfaltatua etorri zen, bizikleta, autoa... eta gauza horiek lagundu zuten herri bereko euskaldunak eta biarnesak elkartzen, zenbaitetan. Orduan, duela mende bat, harremanak oso urriak ziren herri bereko euskaldunen eta biarnesen artean, eta gero, modernitatearekin batera, familiak hasi ziren hurbiltzen. Prozesu luzea izan zen. Ez da bakarrik Eskiula aldeko

Babeslea: IVAP



HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA




**Komunikazio
Elektronikoa**

IVAPen gomendioak web-orriak
idazteko





Kudeaketa
Kalitateari
2012



Philippe Etxegorri Legazpiko Zingizango Euskara Elkartearen liburu argitaratzeko sustatzaile eta babesle. Irudian, liburuaren azala.

Eskiulako kasua, non euskararen transmisioa familiarra den, eta Barkoxekoan aldiz haurrek euskara Haur Eskolan ikasten dute, edo Barkoxen bertan edo Sohütan.

Banaketa administratiboak nolako eragina izan du Biarnoko herrietan euskara zenbait arlotan errekonozitua duen Zuberoaren ondoan?

Banaketa administratiboak Biarnoko euskaldun batzuk ardatz euskaldunetik urrundu ditu, argi eta garbi. Jeruntzen bizi direnek, nahitaez, harreman gehiago dute Jeruntzeko herri barneko bizilagun biarnesekin, Eskiulako bizilagunekin baino. Baina egiazko arazoa ez da orain aipatu dudana. Egiazko arazoa da banaketa administratiboak ezezko dinamika sortu duela. Oraingo egoera zera da, elizak indarra galdu du, eta eliza euskararen babeslea zen. Eskola frantsesek ez du euskara laguntzen eta bizilagun berriak ere anitzetan ez dira euskararen alde. Oloroe alde-

ko administrazioak Eskiula irentsi du, nolabait.

Eskiulak harreman onak ditu Zuberoarekin zein Biarnorekin. Ez ote du egiten giltzarri lanik Euskal Herria eta Biarno artean?

Bai, hala ikus daiteke. Eskiulatarekin harreman onak dituzte bai biarnesekin, bai zuberotarrekin, bai beste euskaldunekin, eta hori izan daiteke aipatzen duzun giltzarri lan hau, eta eskiulatarrak bi munduren artean bizi direla erakusteko bi gauza aipatuko nituzke. Bata da Eskiula Zuberoako Sindikataren kidea dela, eta aldi berean Oloroe mendebaldeko herri elkar-goaren kidea ere bai.

Josbaig eta Baretos haranetako etxalde euskaldun horiek ere... Euskal Herria dira. Ez genuke euskaldunok lurralde paradigma hau beste modu batez ulertu behar?

Bada nik ez dakit zer ihardetsi. Eskiula aldeko euskaldunek badakite Biarnoko lurretan bizi direla, historiak hola azaltzen baitu, baina aldi berean badakite euskaldunak direla eta Euskal Herriko kideak direla; euskaraz egiten dute, euskal kultura daukate. Orduan, horretan utziko dut auzia.

Erronka pertsonala izan da liburua. Idazteko kanpoko laguntzarik jaso al duzu?

Lehen laguntzaileak Biarnoko euskaldunak izan ziren, noski. Etxez etxe ibili nintzen galdezka eta anitzek beren etxeko atea zabaldu zidaten, eta hori zinez eskertzen dut. Leo Lucuix eskiulatarraren laguntza paregabea azpimarratu nahi nuke. Aparteko ikertze lana egin zuen Eskiulako historiari buruz, tokian tokiko artxiboetan murgildu ondok. Nire iturri nagusietako bat izan da.

Beste laguntzaile berezi bat 2010 urtean agertu zitzaidan ia ustekabe: Legazpiko (Gipuzkoa) Zingizango Euskara Elkartearen. Horien eskutik unibertsitateko irakasle batzuk ezagutu nituen, aholku onak eman zizkidatenak.

Dena dela, liburu honek biki osagarri izango zukeena bada: Euskal Herriko

biarnesak, hots, Euskal Herrian bizi eta biarnesez mintzatzen diren lagunei buruzkoa.

Ados naiz ideia interesgarria dela, baina nik uste beranduegi dela. Iparraldeko euskara ahulezia egoeran baldin bada, Biarnoko hizkuntza, biarnesa, kinka larriagoan da. Eskiula aldean biarnesez egiten duten bizilagun guztiak adinekoak dira eta ez dute gehiago biarnesa baliatzen eguneroko bizitzan. Biarnesa oroitzen dute, eta galdera zuzenak egiten badizkiezu biarnesez egiten badakite, baina biarnesak eguneroko izate hori galdu du aspaldi.

Zuberoan euskararen egoera zaila da belaunaldi gazteenengan. Nola dago Josbaig eta Baretos haranetako auzotan?

Josbaig haraneko euskara hilzorian da, euskaldun gutxi bizi baitira eta guztiak adinekoak. Baretos haranean, aldiz, badakit euskararen egoera hobexegoa dela, batetik euskaldun gehiago bizi direlako, eta bestetik, guztiak ez direlako adinekoak, baina Baretos haranean ere egoera kezkarria da.

Baina zerk eragin du euskararen galtzea? Nola izan da familietan transmisio haustura?

Kontu hau iragan mendeko historiak azaltzen du, eta ez da bakarrik Eskiula aldeko kontua. Iparralde osoan gertatu zen eta nik erranen nuke Frantzia osoan ere gertatu dela, beste eskualdeetan. Mugimendu orokor bat izan zen, eta frantseza nolabait modernitatearen hizkuntza bilakatu zen, nazio garailearena eta frantses kultura Iparraldean eredu bat zen. Gero, euskararen kontrako politika aktiboak edo ez aktiboak gertatu ziren eta politika horien emaitzak ezagutzen ditugu.

Nor da Alaxeko Maixa ttipia?

Nire alaba. Nire alaba bizkaitarra da, baina pentsatu nuen liburuari esker jakinen zuela bera nondik datorren eta zein den bere arbasoen historia, eta ez dut zalantzarik horretaz oso harro sentituko dela. ■

